

Getxo >MEETING<



Ekainak 9

"Erabakiak hartu nahi ditut": Zenbatetan pentsatu al duzu hori?

Ekiten duzunean, dena azkarregi doala senti dezakegu eta, aldi berean, agian irudituko zaizu astiroegi egiten duzula aurrera. Egun bakoitza berria da eta horrek ziurgabetasun-sentsazioa sortzen du.

Egunerokotasunean erabaki ugari hartu behar dira eta horrek zarata gehitzen du zure buruan.

Ondo dago eguneroko ekintzak gogoan izatea, egindako aurrerapenak ikuspuntu objektiboago batetik begiratzeko. Egun bakoitza egun horretan ereindakoaren arabera neurtzea, eta ez soilik jasotako emaitzen arabera.

Erabaki hobeak hartzeko, lagungarria izan daiteke gelditzea eta ikuspuntu berria aurkitzeko uneak izatea, hobeto ikusteko distantzia egokia hartuz.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/es/promocion-economica



Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

Aurreko saioan, artearen bidez pentsatzeko metodologia bat erabili genuen: **behaketaren** eta **galdera gako**en bitartez, irudiak —kasu horretan, Getxophotoko argazkiak— gainditu beharreko erronka islatzen duen ispilutzat hartu genuen. **Gai estrategikoak jorratzeko** diseinatu den metodoa da, askatasun mental handiagoarekin heldu ahal izateko gaiei.

Getxo MEETING saioetan egiaztatu genuenez, buruan dugun informazioa ateratzea eta euskarri grafikoren batean —testu batean, zirriborro batean— islatzea edo elkarriketa batean kanporatzea oso lagungarria izan daiteke burua husteko. Baita zarata murrizteko ere.

Erabakiak hartu nahi baldin badituzu, lagungarri izango zaizu hauxe pentsatzea:

- Zein eragin dauka zugaran gai jakin bati buruzko erabakirik ez hartzeak?
- Zein da egoerarik onena eta zein txarrena? Izan ere, orokorrean, bi muturren arteko zerbait gertatu ohi da.
- Zenbat denbora egongo zara ideari bueltak ematen? Baliteke *analisiagatiko paralisia* izatea, hau da, gehiegi pentsatu nahi izateagatik geldotasun-egoeran egotea.
- Alde onak eta txarrak biltzen dituen zerrenda batek laguntzen ez badizu, agian ebatzi beharreko arazoa beste bat da.

Izan ere, zenbatetan gertatu zaizu gai batean tematzen zarela baina egoera konpontzeko lehentasunezko gaia beste bat dela?

Zure enpresa gidatzen duten printzipioak eta epe luzerako helburuak zeintzuk diren gogoan izan ahal baduzu, errazagoa izango zaizu erabaki txiki zein handiek denboran zehar dituzten ondorioei buruz pentsatzea.